

# B

BARREN

TOKIKOM



**“PPkoa eta  
homosexuala  
izatea ez da  
kontraesana”**

Javier Nuñez, PPko zinegotzia





www.santos.es



**nu-van**  
proiektu eta altzariak

**sukaldeak**

basarte n°3, Bgoibar 943 03 36 72

**-%10**

basarte n°3, Elgoibar

# LAGUNAK KOLTZOI DENDA-TEXTIL HOGAR

PROBATZEKO

**60**  
GAU!

Edozein  
**TEMPUR** koltxoietan  
(neurrira egindakoak  
izan ezik)



**Berria!**

Etxeko laguntzan adituak



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Alzariak



terxy



Oihana  
Ore geriatrikok



KEYTON®  
Mesajedun besauek



Mish

## Atez ateko zabor bilketa

Azken aldian komunikabideen eskutik jakin dugu Bilduren Udal gobernuak atez atekoa bezala ezagutzen dugun zabor bilketa sistema ezartzea erabakiko duela Mendaron. Ez diogu gardentasunik eta demokraziarik ikusten horrelako erabakiak komunikabideetan argitaratzeari, Udaletxean alde zuretik analisirik, eztabadarik eta erabakirik egon ez denean.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala (PIGRUG) onartu zuten, eta bere ondorioz, sortzen ditugun hiri hondakinen gutxieneko %60 birziklatu, berrerabili eta konpostatu egingo dugu 2016. urtean. Zaborren kudeaketa zikloa hondakinak balioztatuz itxi behar dela jasotzen du, hau da, *fracción resto* edo errefus hori erraustuz.

Foru Arauak jasotzen dituen neuriei beste batzuk gehituta, hondakinen kudeaketan eta demokrazian aurreratu den dauden herrien neurian jartzen lagunduko digute. Azken urte hauetan, 2000 eta 2010 urteen artean, Gipuzkoan hiri hondakinen gaikako bilketa %17,4 izatetik %43,31 izatera pasa da.

Birziklatzearen aldeko apustua garbia da, eta horretarako jendea kontzientziatu eta hezi egin behar da, baina ez inposizio bidez.

Gure ustez atez atekoa atzerakada da, herritarrei ezartzen zaien sakrifizio neurrigabeagaitik, hondakinak biltzen dituzten langileen lan baldintzak okerrera egingo dutelako, garestiagoko delako eta ez delako erakutsi eraginkorragoa denik. Sistema honek gure herriaren garbitasunean eta itxuran eragin ezkorra du, eta

“zaborren turismoa” sortaraziko du. Guk ez dugu zabor poltsarik nahi gure kaleetan!

EAJk uste du herritarrak direla jarraitu beharreko bidea aukeratu behar dutenak, eguneroko bizitzan zein etorkizunari begira zuzenean eragiten dien gaia delako hau.

Zabaldutako eztabaida honetan ezinbestekoa da parte-hartze prozezu bat abian jartzea, herri kontsulta egitea eta Mendaroko Udalak kontsulta horren emaitza errespetatu eta berea egitea.

Irune Berasaluze



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

**“Birziklatzearen aldeko apustua garbia da, eta horretarako jendea kontzientziatu eta hezi egin behar da, baina ez inposizio bidez”**

# ETXEBIZITZA GEHIGARRIA

## martxoak 30

Zure etxea saltzeko edo alokatzeko aukera paregabea  
5€-ren truke

943 744 112

barren@elgoibarkoizarra.com

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale  
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:



## Laguntzaileak:




EL GOBIERNO LESLE



MENDAKO UDALA



AIRE AIRE 12 ELGOIBAR



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Gazteok ere grebara, gure eskubideen defentsan!

Espainiako Gobernuak onartu duen lan erreformak eragin zuzena izango du gazteengan, gure lan baldintza prekarioak are eta larriagoak bihurtuko direlako.

33 urte bete arte formakuntza kontratuekin egon ahal izango gara lanean, 500 euroko soldaterekin, eta edozein unetan kaleratuak izateko arriskua izango dugu.

Ekintzaileen kontratu gisa ezagutzera eman dutenarekin, urtebeteko proba epea jartzeaz gain, edozein unetan kaleratuak izan gaitzeko, inongo ordainik gabe.

Enpresariak eta gobernuak aitortu duten bezala, erreforma honek ez du enplegurik sortuko. Gaur egungo gazteok eta ondorengo belaunaldiek ez dugu enplegu egonkorrik ezagutuko.

Gazteriaren egoera latza ez da hor amaitzen. Gaur egun Hego Euskal Herrian langabeen %28 gazteak gara-eta.

Gaur egungo krisi ekonomikoa, sistema kapitalistaren krisia da, baina benetako irtenbide jasagarria sustatu ordez, elite ekonomikoa beren interesen mesederako diren erabakiak hartzen ari da.

Horren aurrean gazteok beste eredu ekonomiko eta sozial bat eraiki behar dugu, baina hori ez da posible estatu espainiarraren barruan. Independentzia behar dugu, burujabetza politiko eta ekonomikoa ezinbestekoa da gure bizi proiektu duina garatu eta politika ekonomiko eta sozialak herritarron esku izateko.

Elgoibarko gazte independentistok dei egiten diogu gazteriari, langile, ikasle zein langabetu, Greba Orokorrean parte hartzera. Antolatuz eta borrokatuz soilik lortuko dugulako gure eskubideak errespetatzea.

**Elgoibarko gazte independentistak**

### 29an pauso erabakigarria emango dugu!

Espainiako gobernuak banketxe eta kapitalisten zerbitzura azken hamarkadetan erreforma pakete oso bat inposatu digute, lan eskubide eta sozialak indargabetzeko asmoz (pentsioak, negoziazio kolektiboa...). Horren ondorioz, pobrezia eta prekaritatea zabaltzen joan dira.

Baina lan erreforma berria guztietatik bortitzena da: botere osoa ematen die enpresariari soldatak, ordutegiak eta lan baldintzak nahi duten modura moldatzeko. Kaleratzeak erraztu eta merketzeaz gain, langileak kalean uzten ditu inolako babesik gabe, gastu publikoaren murrizketen ondorioz ere prestazio sozial nahikorik egongo ez delako.

Hori gutxi balitz, martxoaren amaierarako sektore publikoaren erreforma datorkigu eta azken urteotan kaxkartuz joan diren osasun eta hezkuntza zerbitzuak are gehiago erasoko dituzte sistema pribatuei negozioa emateko (banketxeen pentsio planak, mediku aseguruak, eskola pribatuak), horixe baita erreforma hauen guztien helburua.

PPko zinegotziak esandako gezurren gainetik, neurri hauek ez daude pentsatuta krisi egoeratik ateratzeko. Bankero espekulatuak sorturiko krisi honetan sartu gintuzten baino lehenagotik diseinatutako eta idatzitako neurriak dira.

Zorionez, Euskal Herrian baldintza politiko, sindikal, sozial eta ekonomikoak baditugu beste-lako eredu sozioekonomikoa eraikitzeko, baina martxa honetan Espainiaren parean egongo gara laister. Beraz, premiazkoa da euskal herritarrok geure bide propioari ekitea. 29an burujabetzarako pauso erabakigarria emango dugu grebaren bidez.

**Elgoibarko LAB sindikatua**

## OHARRA

Elgoibarko Izarra kultur elkarterako langileen batzarrak bat egin du martxoaren 29ko greba deialdiarekin. Hori dela eta, datorren egunean **BARREN**eko erredakzioa itxita egongo da. Beraz, datorren asteko alean zerbait argitaratu nahi izanez gero, (zorion agurrak eta merkatu txikiko iragarkiak barne) martitzen eguerdirako helarazi beharko diguzue informazioa. Mila esker.





Maialen  
Arnedo

Liburu asko ditut ohe ondoan baina, gutxi dira, maiz irakurrita ere, disfrutatzen ditudanak; Sarriren *Kartzelako poemak* kasu. Gaur goizean, esku artean hartu dut berriro ere. Irakurlea ez omen da indiferente geratzen iurretarraren idatzien aurrean eta horietako bat ni nauzu, Joanes. Hona hemen hausnartzera naraman poemetako bat (egileak barkatuko didalakoan, izenak aldatuta):

*Iraultza ala hil izkiriartzen dute, esposaturik, furgoi berde ilunen barruko aldean, AINARA patioetako ibilaldien urratsak entzuten dira, mundua patioa balitz bezala, ARNALDO haien amodio antsia oztoporik eta bazterrik aurkituko ez duen uhina lez entzuten da. JUAN MARI arrazoi sakonak entzuten dira, hizkera sekretuan, SEBAS atea kolpatzen dituztenean, han eta hemen entzuten da, mundua galeria zarratu hori besterik ez balitz bezala haien oinaze isileztatua nahinon entzuten da, MIKEL euskal preso guzien sakrifizioa eta duintasuna ikusten da kristal bakoitzaren bestaldean, aberriaren astuna paparrean, papagorriek bezala daramatela.*

**“Askotan berbek ekintzek adierazten ez digutena erakusten digute”**

Ainara, Arnaldo, Juan Mari, Sebas, Mikel, Iriondo, Zalao, Beñat, Xalba... barruan daudenei, barrote arteko oroitzapenak ezin ahazturik daudenei, gaixo larriei, iheslariei, etxean preso dituztenei, geure artean ez daudenei. Besarkadarik handiena guztiei eta haien senideei, dispertsioaren gainetik dozenaka kilometro eginez, etxekoei maitasun guztia eramaten dietelako. Ba al dago zuretzat Joanes, zer pentsatu ematen dizun liburu-rik? Txinan egonik, ezagutu ahal izango dituzu bertako hainbat idatzi. Aprobetxatu, askotan berbek ekintzek adierazten ez digutena erakusten baitigute.



Joanes  
Rodriguez

Berbak berbetan ez gelditzeko ekintzak beharrezkoak dira Maialen, bai Elgoibarren baita Shanghain ere, batzuetan legez kanpokoak badira ere. Txinatar kulturako idatziak ulertzea nahi nuke, baina nire txinera irakurketa maila momentuz ez da nahikoa. Hala ere, txikitatik irakatsi didate liburuak ametsen eta proiektuen artean dagoen diferentzia bakarra fetxak zehaztea dela (Frida Kahlo). Besarkada bat guztioi. Kurioso da baita preso denaren metafora. Aipatu bezala, Ainara, Arnaldo, Juan Mari, Sebas, Mikel, Iriondo, Zalao, Beñat, Aiala, Xalba... barruan daude beraien pentsatzeko moduarekin koherente izan direlako, nolabait, aske.

**“Berbak berbetan ez gelditzeko ekintzak beharrezkoak dira”**

Baina, galdetu al diozu zeure buruari zenbat preso aske ezagutzen dituzun? Egunerokotasunak janda bizi denik? Amesten ez duenik? Seme-alabei kasu egiten ez dienik lanetik nekatuta iristen delako? Gobernu batek inposatutakoari men egin eta koherentzia galtzen duenik? Telebistaz elikatzen denik? Zoriontsu denik? Beste batzuen ideiak inposatuak dituzten pertsona librean kasua da Txinan bizitzen nabilena, askatasunik gabeko gizarte kartzelario batean bizi direnak. Ez dakit kontzeptua guztiz zuzena den eta ezta ere egia den, baina beti pentsatu izan dut aske izatea zailagoa dela, preso izatea baino. Azken finean, nork askatzen du bere ideien preso dena? Munduan dauden errealitate ezberdinak bizitzen nabil nire bizitzako etapa hone-tan, eta ideia gehiago eta ezberdinak ditudan arren, aske izatera iritsi nahitekeela pentsatzen hasi naiz, kontzeptuak berak indarra ematen didalako. Nahiago al dugu belauniko bizi edo borrokatu eta zutik hilt? Aske izatea da besteak errespetatzea, izan zirenak, gaur garenak eta izango direnak (Nelson Mandela).

ESKERTZA

**FAUSTA ALBERDI ARRIOLA**

*Jose Mari Mendizabalen alarguna*

2012ko martxoaren 20an hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# ERREFORMA HOTSAK

**Ekonomia-gaiak egunero dira notizia gurean. Krisiak egunkari eta teleberriak betetzen dituen honetan gobernuaren lan erreforma berriak eta martxoaren 29ko greba deialdiak eztabaida bat gehiago jarri dituzte mahai-gainean. Langabeziak gorantz dihardu. Elgoibarren bertan, azken urteetako langabezia tasa altuena izatera iritsi gara pasa berri dugun otsailean: biztanleria aktiboaren %12,1 dago langabezian, 681 pertsona guztira. Horietatik emakumeak dira 360, eta 321 gizonak. Ez da beraz egoera erraza ekonomiak erakusten duena. Greba orokorra ate-joka izanda, erreformaren inguruko batekoak eta besteak batu nahi izan ditu BARRENEK. Saiatu arren ez dugu lortu, baina, enpresarien iritzia gurera ekartzetik.**

**Ainhoa Mendibil Artetxe**



**Z**arata asko atera du Rajoyren gobernuak aurrera ateratako lan erreforma berriak; eragin zuzena izango du langile zein langabetuegan, baina ez da erraza hala ere bere ondorioak ezagutzea. Batzuek erreformaren kontrakoak erakusten dizkiguten bitartean besteek alde onak baino ez dizkiote topatzen. Hona hemen hitz pila horretan nabarmentzen diren ideia batzuk.

## **Kaleratzeak**

Enpresarentzat merkeagoa den kaleratzea proposatu dute. Kontratu mugagabedun langilea kaleratzerakoan lan egindako urte bakoitzeko 45 egun beharrean 33 ordainduko ditu enpresak. Eta gehienez ordaindu beharreko hilabeteak 42 izan beharrean 24 izango dira aurrerantzean. Kaleratze objektiboa, merkeena, justifikatzeko nahikoa izango da enpresak galerak dituela, espero dituela edo hiru hilabeteen jarraian salmentak jaitsi direla azaltzea. Kasu horretan langileari hogeit hamar eguneko kalte-or-

daina emango diote, hamabi hilabeteak gehienez ere.

## **Enpresentzako hobariak**

Ekintzaileentzako kontratua sortu dute, eta horrekin gazteak kontratu mugagabeen lanerako hartuz gero, enpresak 3.600 euroko hobaria jaso dezake. Era berean, denbora luzean lan gabe daudenak edo 45 urtetik gorakoak kontratatuz gero ere, 4.500 euroko hobaria jaso dezake enpresak.

## **Negoiazio kolektiboa**

Enpresetako lan itunek dute lehentasuna. Sektoretako edo

probintzietako itunetakoak baino lan baldintza kaskarragoak onartu ahal izango dituzte.

## **Aldi baterako kontratua**

2013tik aurrera debekatuta egongo da aldi baterako kontratuak 24 hilabete baino gehiagoz luzatzea.

## **Ekintzaileen kontratua**

Ekintzaileei laguntzeko kontratu mugagabea sortu dute. Kontratatutako ekintzaileak bere soldatarekin batera dagoen langabezia sariaren laurdena ere jasoko du. Zehazteke dago ordea, horrek zer eragin

izango duen langilearen langabezia sarian.

## **Prestakuntza kontratua**

Prestakuntza kontratua sortu dute gazteen langabeziarekin bukatzeko. 25 urtetik 30 urtera igaro da mota honetako kontratuak izan ditzaketenen profila, eta 500 euro inguruko soldatadun kontratua izango dela aurreikusten da.

## **Malgutasuna**

Lan-malgutasuna handitu da. Besteak beste mugikortasun geografikoa malguagotzeko aukera eskaini zaie enpresei.



## **“Ez dugu lortuko legea aldatzea. Bere aplikazioan eragitea, ordea, gure esku dago”**

**PPk aurkeztutako lan erreforma aurrekaririk gabeko langile eskubideen kontrako eraso dela diozue.**

35 urtean zortzi aldiz erreformatu dute espainiar estatuko legedia, beti, lanpostuak finkatzearen edo prekaritatearekin bukatzearen izenean, eta kontrako efektua izan dute azkenerako guztiek. Erreforma berri hau, PSOEren erreformaren jarraipen bat da, eta enpresariak egindako eskari guztiei erantzuna, ez da besterik. Lan harreman batean bi subjektu egongo dira beti: bata enpresaria eta bestea langilea. Eta harreman hori beti desorekatuta egon da, orduan legearen bitartez orekatu ohi zen zertxobait. Zer gertatu da orain? Egin dituzten erreforma guztiekien oreka hori apurtu egin dutela. Beraz, esan dezakegu lan zuzenbidea erdihilda dagoela edo desagertzeaz dagoela, enpresariari eman diotelako indar guztia eta langilea batere babesik gabe dago orain.

**Zeintzuk dira oreka hori hautsi izanaren ardatz nagusiak?**

Erreformak hainbat ardatz zehazten ditu: enpresariari erraztasunak eman dizkiete lanean dagoena kaleratzeko. Era berean, erraztasunak eman dizkiete kontratazioetarako, betiere, kontratazio prekarioetarako. Horrez gain, enpresariak horrenbestetan eskatu izan duten malgutasuna eskaini diete; ez, ordea, langileen beharretara moldatuko den malgutasuna. Eta azkenik, negoziaketa kolektiboari egin diote eraso. Probitziako lan-hitzarmenak desagerrarazi egin dituzte, eta enpresariak dauka lan-jarduna, soldatak edo dena delakoak aldebakarrez moldatzeko eskumen osoa.

**Baina, lehen ere enpresak moldatu zezakeen lurraldeko hitzarmena.**

Bai, baina sekula ez langilearen kalterako. Hau da, herrialdeko hitzarmenak zoru lana egin du orain arte, minimo moduko batzuk zehazten zituen herrialdeko hitzarmenak, eta hortik behera ezin zitekeen aldaketarik egin. Gutxieneko efektua egiten zuen.

Orain, ordea, estatuko hitzarmenak zehaztuko ditu gutxiengo horiek. Eta adibidez, Gipuzkoako metaleko hitzarmena, estatu espainiarreko onenetariko dena, desagertuko balitz Gipuzkoako metaleko langileek soldata jaitsiera izugarria izango lukete. Espainiako hitzarmenak mahai gainean jartzen dituen mekanismo guztiak soldatak igotzen joan beharrean, jaisten joateko dira-eta.

**Noiz hasiko dira erreformaren eraginak igartzten?**

Hasi gara dagoeneko! Otsailaren 10ean onartu zuten, eta 13tik indarre-

an dago. Hortaz, gure lana enpresariak konbentzitzea da; indarra egin behar dugu erreforma aplikatu ez dezaten. Esan dezakegu erreforma gobernua enpresariari egiten dion opari bat dela, eta enpresariak hartu dezakete beraiantzat edo ez. Euren esku dago.

**Erreforma aplikatzea ez bada, zer egin daiteke?**

Badaude bestelako eredu batzuk jarraitzeko aukerak. Adibidez, akordio interprofesional bat bultzatu daiteke Euskal Herrirako izango dena. Hau da, goazen negoziatzera Euskal Herrian lan harremanetarako euskal esparru propioa, eta eztabaida ditzagun joku-arau desberdinak. Eta hori posible da. Badaudelako baldintza sozialak, ekonomikoak, edota politikoak. Horregatik indarra egin behar dugu, eta greba orokor honek balio behar du indarra badagoela eta bestelako eredu bat posible dela aldarrikatzeko.

**Erreformak ahulena ahultzeko eta boteredunek are botere gehiago izateko balioko duela diote sindikatuek.**

Dudarik gabe. Adibidez, zer gertatuko da gazteekin? Orain arte, gure gurasoek euren gurasoak baino hobeto bizi zuten. Berdina gertatu zen hurrengo belaunaldiarekin ere. Lan baldintzak edota bizi-kalitatea hobetuz joan dira urtez-urte, gaur arte. Lehen aldiz, belaunaldi berriak euren gurasoek baino egoera kaxkarragoan bizi beharko dute. Erreforma honek orain arte ezagutu duguna deuseztatuko du. Gazteek ez dute ezagutuko ez lan edo soldata duina, ez hitzarmen kolektiboa, ezta lan fijoak ere. Ezer ere ez.

Gainera, gazteentzako aldaketa egoki moduan saldu du gobernua erreforma, baina guztiz kontrako da. Esate baterako, lehen 25 urtera arte luzatu zitezkeen formazio-kontratu delakoak. Orain 30 urtera arte luzatzeko aukera eskaini dute. Horrek esan nahi du 500 euroko soldata baten truke lan egin beharko dutela gazteek. Eta gainera, lehen horrelako kontratu bat behin edukita beriz horrelakorik izan ezin zen arren, hori ere aldatu da eta enpresa batetik bestera igarota ere jarraituko du gazteak formazio-kontratupean lanean.

**Egoera ez da batere erraza, baina sarritan jarri izan da dudaren grebaren eraginkortasuna. Zer konponduko du grebak?**

Guk ere badakigu grebak ez duela automatikoki egoera konponduko. Hau da, barixaku goizean esnatu eta ez digute esango gobernua damutu egin denik, konturatu dela gaizki egin duela, eta erreforma bertan behera geratu dela. Ez. Baina greba borroka fase berri batean sartzeko balioko digun inflexio puntu bat da. Erakutsi behar dugu langileen artean erreforma geratzeko nahikoa indar dagoela. Ez dugu lortuko legea aldatzea, bere aplikazioan eragitea, ordea, gure esku dago. Horretarako eta horregatik irten behar dugu kalera datorren eguenean.

## **DEIALDIAK**

- **Martxoak 24, 12:00etan elkarretaratze ibiltaria Nafarroa Plazan.**
- **Martxoak 28, 21:00etan kotxe karabana Guasseko aparkalekutik hasita.**
- **Martxoak 29, greba eguna:**
  - 9:00 Plaza Handian.
  - 11:30 Plaza Handian, Donostiako manifestaziora joateko.
  - 18:00 Manifestazioa Plaza Handitik hasita.



# Lanbide Heziketa sustatzeko jardunaldiak antolatu ditu Udalak, IMH eta Mekarekin elkarlanean

IMH eta Mekaren eskaintzaren berri ematea da jardunaldien helburua

**E**lgoibarko Udalak Lanbide Heziketa sustatzeko jardunaldiak antolatu ditu hirugarren urtez. IMH eta Meka ikastetxeen eskaintzaren berri ematea da jardunaldi horien helburu nagusia, eta horretarako, informazio bilera bat egin dute aste honetan bertan Batxilergoko ikasle eta gurasoekin.

Jardunaldiok apirilean izango dute jarraipena. Hilaren 19an Institutuko ikasleek IMH eta Meka ikastetxeei buruzko informazioa eskuratzeko saioa izango dute. Apirilaren 23an eta 24an, berriz, tailer dinamikoak egingo dituzte Ikastolako DBH4. mailako ikasleekin, gaur egun gizartean ditugun estereotipoei buruzko hausnarketa egiteko. Apirilaren 25ean eta 27an gauza bera egingo dute Institu-



tuko DBH4. mailako ikasleekin. Hitzaldia eta hausnarketa horiez gain, Isla galda-ragintza enpresara egingo dute bisita ikasleek, Lanbide Heziketak dituek irtee-

rak gertutik ezagutzeko.

Azkenik, ate irekien jardunaldia egingo du IMHk apirilaren 21ean, eta Mekak maiatzaren 18an.

## Martxoaren 29ko grebara deitu ditu Bilduk elgoibartarrak



Bilduko zinegotziek martxoaren 29rako grebara deitu dituzte elgoibartarrak, lan erreformaren kontra protesta egiteko. Bildukoen arabera, erreforma hori langileen eskubideen aurkako 'eraso bortitza' da, eta helburu bakarra soldatak eta kaleratze-

engatiko kalte-ordainak murriztea da, "lan eginiko urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina desagertu egin baita, urte bakoitzeko 20 eguneko kalte-ordaineko kaleratzea orokortze-arekin batera". Bildukoen esanetan, "kaleratzeko unean langileak dituen

eskubideak muturreraino murriztu dira, joan zen mendeko baldintzetara itzuliz". Horrez gain, erreformak negozio kolektiboaren bidez lortutako guztia ezerezean lagatzen duela salatu dute, eta enpresaburuek langileen baldintzak nahieran aldatzeko eskubidea ematen duela adierazi dute. Era berean, erreformak gazteei eraso egiten diela esan dute.

Hortaz, Bilduko zazpi zinegotziek lan erreforma salatu dute, eta Espainiako Gobernuari lan erreforma lehen bailehen indargabetzeko eskaera egin diote. Horrekin batera, lan harremanen Euskal Esparrua indarrean jarzea eskatu dute: "euskal herritarro lan merkatua arautu behar duten legeak erabakitzeak aukera emango digun esparrua". Azkenik, Euskal Herriko legebiltzarkide hautetsiei kongresuan eta senatuan lan-erreformaren aurkako botoa ematea eskatu diete.



## Izena **Elena Alonso**



Elena Alonso izango da udaletxeko berdintasun teknikari berria, eta berdintasuna eta enplegua uztartzea izango da bere ardura. Elgoibarko langabezia tasa %12,1ekoa da, eta langabeen artean gehiago dira emakumeak. Beraz, "egoera berezi honetan", Berdintasun Sailari ikuspegi berezia ematea beharrezkoa dela azaldu du Alfredo Etxeberria alkateak. Astean lau egun egingo ditu lan Elena Alonsok Elgoibarren, eta barixakuetan Debegesan egongo da. Egin beharrekoen artean, enplegu mahaia sortuko dute eskualdeko eragileekin (Lanbide, Debegesa, Aldundia, ikastetxeak eta enpresak), eta ekonomia eta enplegua sustatzeko plana prestatuko dute. Apirilaren 25ean aurkeztuko dute IMHn.

## Berbia **Banderak**

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Espainiako bandera jartzera behartu du Elgoibarko Udala, berak aurkeztutako helegitea atzera botata. Agindu hori betetzea erabaki du Alfredo Etxeberria alkateak eta banderak noiz jasoko zain daudela adierazi du. Honenbestez, udaletxearen kanpoaldean eta pleno aretoan jarriko dute Espainiako bandera. Espainiako banderaz gain, baina, Europakoa, Gipuzkoakoa, Elgoibarkoa eta ikurrina jarriko ditu Udalak.



## Irudia **Juan Mari Mendizabal Elgoibarren**



Arg.: Soarte

Aste honetan Juan Mari Mendizabal preso elgoibartarraren ama hil da, eta eguazten goizean Elgoibarrera ekarri zuten Mendizabal, atxilotuta. Senideek egin zioten harrera, eta ordubete inguru izan zuen tanatorioan amari azken agurra esateko. Azken asteak Martuteneko espetxean egin ditu Mendizabalek amaren osasun egoera zela-eta, baina berriro ere Burgo-sera eraman dute.

## **50 urtekoen kinto bazkaria maiatzaren 26an**

Aurten 50 urte betetzen dituzten elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute maiatzaren 26an, Karakate jaietxean. Interesatuak 85 euro ordaindu beharko dituzte Bankoako kontu korrante zenbaki honetan, maiatzaren 4a baino lehen: 0138 0020110010611458.

## **Trinitate jaietako azoka**

Datorren ekainaren 2an egingo dute Trinitate jaietako azoka berezia, Debemenek eta Udalak antolatuta. Elgoibarko baseritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera, eta interesatuak Debemenera deitu beharko dute (943 744 067), apirilaren 11ra-ko.

## **Benidormera bidaia apirilean, jubilatuentzat**

Benidormera hamabost eguneko bidaia antolatu du Jubilatuen Egoitzak apirilaren amaierarako, eta interesatuak oraindik badute izena emateko aukera. Bestalde, gogorarazi dute apirilaren 12an ETB2ko *Ni mas ni menos* saiora publiko bezala joateko izen-ematea zabalik dagoela.

## **Kiroldegiko sauna berria martxan dago**

Joan zen otsailean erre zen emakumeen sauna Olaizaga kiroldegian, eta dagoeneko, erabiltzeko prest dago. Suteak eragindako kalteak ikusi eta aztertu ostean, sauna berria martxo hasierarako prest egongo zela aurreikusi zuten Udal Kirol Patronatuko arduradunek, eta epeak bete dituzte.



Martxoaren 29rako greba orokorra deitu dute sindikatuek.

## Greba orokorra egiteko nahikoa arrazoi dagoela iruditzen zaizu?



**Manuel Lopez**  
59 urte

Greba egiteko arrazoiak badaude, bai. Baina egun bateko grebak soldatan eragin handia dauka, eta egoera honetan ulertzekoa da greba ez egitea ere. Nolabait protesta egin behar da, baina greba egiteko erabakia ez da erraza, hilabete amaieran min handia egiten duelako.



**Iosu Goñi**  
40 urte

Bai, martxoaren 29an greba egiteko arrazoiak soberan daudela iruditzen zait. Lan erreforma honen kontra protesta egin behar da. Ez dakit greba den protestarako modurik onena, baina egoera honen aurrean zerbait egin behar dugula argi dago.



**Antonio Perez**  
53 urte

Soberan ditugu arrazoiak! Hainbeste urtetan lortutako eskubideak egun batetik bestera galduko ditugu bestela, eta hori ez da bidezkoa. Jendeak egurra jaso du langileen eskubideen aldeko borrokan, eta batzuk hil ere egin dira. Zerbait egin beharra dago.



**Ana Mari Agote**  
57 urte

Baietz esango nuke, nahikoa arrazoi dagoela datorren astean greba egiteko. Egoera benetan zaila da, eta protesta egin beharra dago. Ez dakit grebak zerbait konponduko duen ala ez; seguruenik ez da ezer aldatuko, baina modu batean edo bestean protesta egin behar dugu.

## ■ SEMAFOROA



**Idotorbe-San Pedroko kanpan barbakoa egin ondoren, zikin-zikin lagatzen dute dena.**

“Eguraldi ona iristearekin bat, herritar asko joaten dira egun-pasa Idotorbe-San Pedrorra. Sua piztu eta bazkaria egiten dute, baina gero ez dute sua egiteko lekua garbitzen. Kanpan dauden azpiegiturak erabiltzeko dira, jakina, eta oso ondo iruditzen zait asteburuetan jendea bertara joatea. Baina mesedez, barbakoa aurkitu duten bezala laga dezatela eskatzen dugu, hurrengo doanak ere sua egiteko aukera izan dezan. Mila esker”.



**Basarte auzoa ez da autokarabanak aparkatzeko lekua:** “Herritar askok Basarte auzoan aparkatzen du autokarabana, eta, nire us-tez, Basarte ez da autokarabanentzako aparkalekua. Portalen parean uzten dituzte ibilgailuak. Zer irudituko litzaieke autokarabanan jabeei beraien etxe aurrean kamioiak aparkatzen hasiko balira? Lehen ez zegoen autokarabanak aparkatzeko lekurik Elgoibarren, baina orain badago. Badakit ordaindu egin behar dela, eta Basarten aparkatzea doan dela, baina Basarte ez da autokarabanak aparkatzeko lekua”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) 943 744 112



## Erretratu zaharra



1935

Aste honetako erretratu zaharra Mari Karmen Azkuek laga digu. 1935eko abenduaren 22an atera zuen argazkia bere aitak, Bitoriano Azkue 'Foterok'. Abendua izan arren, eguraldi ona egiten zuela adierazi du Mari Karmenek, eta erretratuan denak txaketarik gabe azaltzen dira. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian azaltzen direnak:

**Zutik, ezkerretik eskuinera:** Felisa Azkue (Ondarroan bizi da), Antonia Gabilondo (†), Tomasa San Martin, Angeles Etxabe (†).  
**Eserita, ezkerretik eskuinera:** Mari Suarez eta Ondarroako lagun bat.

II. URTEURRENA

## JUANA URANGA ARMENDARIZ



2010eko martxoaren 26an hil zen. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 30, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrobian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.

*Gogoan zaitugu*



I. URTEURRENA

## MARIA EPELDE ARRIOLA

*Valerio Esnaola "Muxillo"ren alarguna*



2011ko martxoaren 23an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 24, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrobian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



# JAVIER NUÑEZ

PPko ZINEGOTZIA

## “Alderdi popularrean ez dut arazorik izan homosexuala izateagatik”

**Sexu bereko bikoteak ezkontzea baimentzen duen legearen kontrako errekurtsua aurkeztu du PPko diputatu talde batek, eta Auzitegi Konstituzionalaren erantzunaren zain dago helegitea. Javier Nuñez Elgoibarko PPko zinegotzia PSOE indarrean zegoela ezkondu zen bere senarrarekin, eta beste hainbat konturekin batera, errekurtsu horren aurrea duen iritzia eskatu dio BARRENEK. Nuñez 1995ean sartu zen Alderdi Popularrean, eta 2007ko Udal Hauteskundeetan iritsi zen Elgoibarrera. Ordutik, bera da popularren ordezkaria Elgoibarko udaletxean.**

**Sexu bereko bikoteak ezkontzea baimentzen duen legearen kontrako errekurtsua aurkeztu du PPK. Zu orain dela gutxi ezkondu zara zure senarrarekin. Nola hartu duzu errekurtsuaren kontu hori?**

Lehenik eta behin, argi eta garbi laga nahi dut Alderdi Popularreko zinegotzia izateaz harro nagoela. Errekurtsu hori Alderdi Popularreko 50 diputatuk aurkeztu zuten 2005ean, eta talde horren erabaki pertsonala da. Erabaki errespetagarria da, ezkontza homosexualen alde dauden diputatu

popularren erabakia bezain errespetagarria, alegia.

**Nola uztartzen dira PPKoa eta homosexuala izatea?**

Primeran! Homosexualak, bananduak edo ama ezkongabeak, esate baterako, Alderdi Popularrean ez gara pertsona bitxiak edo estralurtarrak. Pertsona arruntak gara, gure ideologia eta baloreak defendatzen ditugun pertsona arruntak, beste edozein alderdi politikotan dauden pertsonen bezalakoak gara.

**Homosexuala eta PPKoa izatea kontraesana dela uste dute askok. Zer diozu?**

Nire ustez PPKoa eta homosexuala izatea ez da kontraesana, eta apur bat nekatuta nago behin eta berriz errepikatu behar izatearekin. Alderdi Popularraren kontra egiteko erabiltzen duten argudio bat da. Aldiz, sozialista batek seme homosexuala bazterteza ez zaie kontraesana iruditzen. Nekagarria da, izan ere, PP ez beste alderdi politiko guztiak iriakiak eta toleranteak direla saldu nahi digute, eta hori ez da egia. Alderdi guztietan daude





elizaren, abortoaren edo homosexualitatearen aldekoak eta kontrakoak. Beraz, utzi ditzagun inozokeriak alde batera eta onartu dezagun behingoz alderdi guztietan daudela pentsamolde eta sentsibilitate diferenteetako pertsonak. Gainera, hori da alderdi politikoek duten onena, horrek aberasten dituelako.

**PSOE gobernuan zegoela ezkondu zinen zure bikotearekin. PP indarrean zegoela ezkondu ahal izatea nahiago zenuke?**

PP boterean egon zenean *Bat-egite zibilen legea* sustatzen saiatu zen, eta lege horrek eskubide eta betebeharrak ezarriko lituzke homosexualentzako zein heterosexualentzako. Gobernu aldaketaren eraginez, lege hau bertan behera geratu zen, eta PSOEek *Bikote homosexualen legea* jarri zuen indarrean. Lege batekin edo bestearekin, nik nahi izan nuenean ezkondu nintzen, eta sinadura batekin izatezko bikote egiteko aukera soilik izan banu ere, berdindin egingo nukeen.

**Alderdi barruan izan al duzu arazorik homosexuala izateagatik?**

Sekula ez dut arazorik izan Alderdi Popularran homosexuala izateagatik. Ulertzen edo onartzen ez nauen jendea egotea niretzat ez da arazoa. Familian gertatu izan zait, lagunartean ere bai, eta baita udaletxean ere. Beraz, alderdi barruan horrelako egoerak eduki izanak ez nau harritzen. Homosexual guztiei gertatzen zaie gauza bera. Oraindik ez gaituzte erabat onartzen, eta kontrakoa dioenak gezurretan dihardu.

**Eta, alderditik kanpora izan al duzu zailtasunik?**

Alderditik kanpora une zailak bizi izan ditut, bai, eta oraindik ere bizi izango ditut. Kontrakoa esango banu, gezurra esango nuke. Azken une zaila Elgoibarko udaletxean eduki nuen, Osoko Bilkuran. Baina esaerak dioten moduan, *ez du min ematen nahi duenak, ahal duenak, baizik*. Ni ez naiz inoren bizitza pribatuan sartzen, baina beste batzuk, defentsarako argudiorik ez dutenean, nire bizitza pribatuan sartzen dira eraso egiteko. Zorionez, nire lagunak eta senideak, maite dudan jendea, alegia, nire ondoan egoten dira beti. Eta beste horiek, sorbalda gainetik mespretsuz begiratu eta min eman nahi didaten horiek, bost ajola! Hobe lukete beraien bizitzaz arduratu eta nirea bakean uztea.

**Zure alderdia eta Eliza eskutik joan dira sarri, eta gotzainek homosexualitatea gauza anti-**

**naturalizat ere jo dute, are gehiago gaixotasuntzat ere bai. Familia tradizionalaren aldeko agertu izan dira. Halakoetan zer sentitzen duzu?**

Alderdi Popularrak ez dauka Eliza Katolikoa-rekin zerikusirik. Gure alderdian sentsibilitate desberdinetako jendea dago, eta egia da katoliko asko PPren jarraitzaileak direla, baina beste asko EAJkoak, PSOEkoak edo Ezker Abertzalekoak dira. Erlijioak ez dauka politikarekin zerikusirik. Elgoibarren, Udalak eliza katolikoari ematen dion dirulaguntza ere ikustekoa da, eta elizaren kontra dagoela dioen inork ez du hori salatzen. Elizgizonak esaten dituzten astakeriei buruz beraien erantzun beharko dute.

**“Enpresarietzako eta langileentzako onurak ekarriko ditu lan erreformak”**

**PP indarrean dagoenetik, homosexualitateaz gain beste hainbat gai ere pil pilean daude, abortua esaterako. Gai horren aurrean, zein da zure iritzia?**

Ni eta nire alderdia ez gaude abortuaren kontra. Abortua arautzearen alde gaude, eta hau argi geratzea nahiko nuke. Inork ez du atseginez abortatzen, baina gure alderdian ez dugu ondo ikusten 16 urteko neskatila batek gurasoen baimenik gabe abortatu ahal izatea. PSOEek ahalbidetu duen aukera hori sekulako astakeria iruditzen zait. Sozialistek onartu zuten legeari zuzenketa hori egin nahi diogu.

**Martxoaren 29rako greba orokorra deitu dute sindikatuek. Eragile guztiak kontra dituen lan erreforma defendatzen du PPK. Krisia gainditzen lagunduko duela uste duzu?**

Konbentziturata nago, eta nire babes osoa dauka lan erreformak. Funtzionatzen ez duena aldatzea erabaki du Rajoyk, eta lan erreforma nahitaezkoa, beharrezkoa eta benetako da. Politikan erabaki zailak hartu behar izaten dira sarri, eta Rajoyk ez du zalantzarik eduki. Sozialistek eragin zuten enplegu deusesteari amaiera eman behar zitzaion. Mariano Rajoyren gobernu langabetuen eta en-

presariaren azalean jarri da, eta egoerari adarretatik heldu dio. Sozialistek aldaketa txikiak egin zituzten, eta horrela ez dago ezer konpontzerik. Horren adibide dira bost milioi langabetu horiek. Eta langabetu kopurua handitu arren, sindikatuek, tamalez, ez dute ezer egin, eta beraien egitekoa langileak zaintzea da. Lan erreforma onartu aurretik sindikatuek aurreikusita zeukaten greba orokorra egitea. Nire ustez, gobernuaren kontrako greba da martxoaren 29koa, eta ez lan erreformaren kontrakoa.

**Zein dira, bada, lan erreformaren onurak?**

Asko dira, baina inork ez du nahi horiei buruz hitz egitea. Ez naiz denak aipatzen hasiko, baina oro har, kontratu egonkorren alde egiten duenez, enpresarietzako eta langileentzako onurak ekarriko ditu. Eta, bereziki, gazteentzako abantailak ekarriko ditu, izan ere, 16 eta 30 urte arteko gazteak kontratatzen dituzten enpresek 3.600 eurora arteko laguntza fiskalak jasoko dituzte hiru urtetan.

**Zinogotzi asko bizkarzainik gabe dabilta ETAk borroka armatua utzi zuenetik, baina zuk bi dituzu oraindik. Zergatik?**

Nire segurtasuna bermatzeko eskoltak behar nituela erabaki zuenak, gaur egun ere beharrezkoak direla uste duelako. Ez da gure gustuko kontua, eta ez da erraza egunero-egunero bi ezezagunen itzalean bizitzea. Espero dut egunen batean hau guztia amaitzea.

**Euskal presoaren aurrean Gobernuak hartu duen jarrera zer iruditzen zaizu?**

Rajoyk postura indartsua dauka gai honen aurrean, eta ni ados nago bere jarrerarekin. Ez naiz besteen erabaketan sartu zalea, baina Alderdi Popularrari galdetzen zaion bezala, beste batzuei ere galdetu behar zaie ea egin beharrezkoa egiten ari diren.

**Udaletxeetan Espainiako bandera jartzea eskatu du PPK. Elgoibarren jartzea gustatuko litzazuke?**

Jakina! Lehenik eta behin legea betetzeko, eta bestetik, banderak norberaren sentimenduak islatzen dituelako. Bere burua euskalduntzat soilik duenaren sentimendua errespetatu eta txalotzen dut, baina ni bezala, elgoibartar askok europar, espainiar, euskaldun eta, bereziki, elgoibartartzat dute euren burua, eta lau bandera horiek nahiko genituzke udaletxeko balkoian. Tamalez, gure sentimendua ez dute errespetatzen.

# LUZIANO

Margolaria

**Madriren bizi arren, elgoibartarra dauka bihotza Luzianok (Lucio Ruiz-Poveda), eta hamar urteren ostean, bere lanak ikusteko aukera izango dute elgoibartarrek. Bere ohiko paisaien artean Elgoibarko hainbat margolan ikusi daitezke, baina horrez gain, erretratuak margotzen dihardu gaur egun Luzianok, eta alor berri horretan oso gustura sentitzen dela aitortu du. Martxoaren 31ra arte egongo da ikusgai artista elgoibartarraren erakusketa, Kultur Etxean.**

“Nire umetako  
Elgoibarrek ez  
dauka egungoarekin  
zerikusirik”

**Hamar urte inguru pasatu dira azkenekoz Elgoibarren erakusketa bat egin zenuenetik. Zer sentitzen duzu beriz ere zure margolanak Elgoibarren erakustean?**


Niretzako oso garrantzitsua da nire lanak Elgoibarren erakustea. Jaiotzez eta sentimenduz elgoibartarra naiz, eta gustatzen zait elgoibartarrek nire lanaren berri edukitzea. Ez naiz koadroak saltzera etorri, erakustera baizik. Koadroak saltzeko Zarauzko eta Madrilgo estudioak ditut.

**Gazte hasi zinen margotzen, eta dagoeneko, 80 urte egin dituzu. Non aurkitzen duzu koadroak margotzeko inspirazioa?**

Gauza askotan, beti bezala. Ideia berri asko ditut buruan, eta horiek koadroetara eramateko beste ehun urte beharko nituzke! Urtero etortzen naiz Zarautzera udan, eta hantxe margotzen ditut koadroak. Margotzeko estiloan eta margotzen duzunaren interpretazioan dago inspirazioa. Oraindik akorduan daukat amari margolari izatea nahi nuela esan nion eguna. Ez zuen ulertzen, baina niri benetan hori gustatzen zitzaidan.

**Zer ikusiko du zure erakusketara gerturatzen denak?**

Azken hiruzpalau urteotan margotutako 18 lan jarri ditut ikusgai. Paisajeak margotzen ditut, bereziki, baina modu abstraktoan. Koadroa ikusten duenak bere erara interpretatzea gustatzen zait. Gaur egun erretra-



tuak ere asko egiten ditut, eta oso gustura sentitzen naiz alor horretan. Nire lana jarraitzen duenak aldaketak nabarituko ditu erakusketako margolanetan. Sentimentuz beteriko lanak dira.

**Elgoibarko koadroak ere jarri dituzu ikusgai.**

Bai, baina nire erara margotutako Elgoibar ikusten da koadro horietan. Nire umetako Elgoibarrek ez dauka gaur egungoarekin zerikusirik, eta aitortu behar dut lehengoa gehiago gustatzen zitzaidala. Garapenak aldaketak ekartzen ditu, eta gauza batzuk aldatu beharra zegoen. Ni Santa Klaran jaio nintzen, eta auzo hori berri beharra zegoen, baina alde zaharrean berri dituzten etxeak nola geratu diren ez zait gustatu. Kolore bizi horiek ez dira alde zaharrean erabiltzeko egokiak, eta lehengo etxe zaharrak askoz gehiago gustatzen zitzaizkidan. Frantzian askoz gutxiago aldatzen dituzte eraikinak.

**Jende askok argazkiak kopiazen ditu koadroak egiteko. Zer iritzi daukazu horri buruz?**

Ez zait batere gustatzen, eta nik ihes egiten diot erretratuari. Artista batzuk tranpa handiak egiten dituzte argazkiekin. Batzuk argazkiak oihalean proiektatzen dituzte, eta ikusle asko ez dira konturatzen koadro hori argazki bat denik. Koadro batean pintzeladak igarri egin behar dira.



# David MK eta Khris Rios DJ elgoibartarrek munduko bi areto ezagunenetan jardungo dute musika jartzen, Japonian

Apirilaren 2an hasiko dute Japoniako bira

**D**avid MK eta Khris Rios DJ elgoibartarrak Japonia aldera joateko male-tak prestatzen ari dira. Apirilaren 2an ekingo diote birari, eta besteak beste, Tokioko bi dantzaleku ezagunenetan jardungo dute musika elektronikoa jartzen. Lehenengo egunean Ruby Room salan arituko dira, hilaren 5ean Bonobo tabernan entzun ahalko dira beraiek jarritako diskoak, eta hilaren 6an Womb aretoan. Gehiengoarentzat izen horiek ezezagunak



izango dira, baina bi gazte horiek esanda-koaren arabera, musika elektronikoaren alorrean dauden munduko aretorik garrantzitsuenetakoak dira.

David MK eta Khris Rios 2009tik zeuden bira hau lortu nahian, eta 'oso pozik' hartu zuten Japonicus promotoraren gonbidapena: "Sinistu ezinda gaude oraindik", adierazi dute.

## 15 urte musika jartzen

David MK eta Khris Rios orain dela hamabost urte hasi ziren DJ lanetan, eta dagoeneko, Euskal Herriko bi dantzaleku ezagunetako DJak dira. David MK Bergarako New Guass aretoko DJa da, eta Khris Rios Itziarko Txixarro aretokoak. Horrez gain, Internetez ere entzun daiteke beraiek jarritako musika.



## Herriko Antzokia bete egin zen Musika Eskolako ikasleen dantza jaialdian



Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek dantza jaialdia egin dute aste honetan, eta Herriko Antzokia bete egin dute bi egunetan. Eguaztenean zein egunean, ikusle asko batu ziren elgoibartarren dantzarako trebetasunak ikusi eta ikusikizunaz gozatzeko. Adin desberdinetako ikasleek hartu zuten parte, eta estilo desberdinetako dantzak ikusteko aukera izan zuten bertaratu zirenek.

## Zine-foruma gaur gauean, Kultur Etxean

Haizeak antolatuta, zine-foruma egingo dute gaur gauean. *Manual de amor* filma ikusi eta aztertuko dute, Loredi Salegi dinamizatzailearekin. 2005eko komedia honek bikote desberdinen istorioak kontatzen ditu, umorez. 22:00etan hasiko da saioa, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## Arte eta literatur tailerrak, datorren astean

Datorren asterako arte eta literatura tailerrak antolatu ditu Haizea emakume taldeak. Astelehenean, *Los pintores mas pintorescos* izeneko arte tailerra egingo dute Kultur Etxean, 17:00etan hasita. Martitzenean, berriz, hilaren 27an, *La esposa del dios* de fuego liburua landuko dute, Udal Liburutegian. Literatura tailerra arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

# florenaoiz

Independentistak Sareko kidea da Floren Aoiz, eta Arnaldo Askatu Politika Askatu plataformak antolatuta hitzaldia emango du datorren martitzenean, 19:00etan Kultur Etxean. '1512, 1937, 2012... Independentzia!' izeneko hitzaldia emango du Aoizek; Euskal Herriak bizi izan dituen abagune politikoak kontuan hartuta, Nafarroaren konkista, Gernikako bonbardaketa eta gaur egungo egoera izango ditu hizpide independentziaren inguruan jarduteko.

Ainhoa Mendibil Artetxe

## “Herri gisa aske bizitzeko behar dugu independentzia”

### Zertarako independentzia?

Herri gisa aske bizitzeko. Argi erakusten digu iraganak, eta nabarmena da gaur egungo egoeran ere, menpekotasun baldintzetan mugatuta gaudela, ez dugula erabakitze aukerarik eta, finean, ezin dugula guk nahi dugun bidea hartu. Euskal Herriarendako, gaur egun, mendekotasuna oso kaltegarria da, hondoratzen gaitu politikoki, ekonomikoki, kulturalki, sozialki... Lehenbailehen hartu behar dugu norabide-lemak, geure garelako, zalantzarik gabe, geure etorkizunaren nondik norakoak erabakitze onenak. Horixe da independentzia.

### Eta, autonomia zergatik ez?

Autonomia bai, autonomia ez afera ez da hain simplea. Zein autonomiatz ari gara? Autonomia herri baten askatze bidean urrats handi eta emankorra izan daiteke, baina, halaber, atzerako pausoa izaten

ahal da, edo independentziaren aukera oztopatzeko iruzurra. Guk geure esperientziak ditugu: espainiar autonomien ereduaren helburua ez da herriei nahi dutena erabakitze tresnak ematea, bide hori zailtzea baizik. Nire ustetan gakoa lurraldesunaren eta naziotasunaren aitortzan, eta erabakitze ahalmenean datza. Horren arabera aztertu beharko genuke autonomiaren afera.

**Hiru urte aipatzen dituzu hitzaldiko izenburuan. Hurrenez hurren, 1512, 1937, 2012. Zer da zuretzat 1512?**

Espainiarrek independentea zen Nafarroa berenganatzeko egin zuten eraso erraldoiaren urtea. Konkistaren urtea, hots. Aurretik beste eraso batzuk pairatu zituen Nafarroako erresumak, eta ondotik ere; baina 1512 datak guziak ordezkatzeko ditu, zalantzarik gabe. Estatu hura indarrez desegin zuten, gaur egun jasaten dugun



menpekotasun egoeraren oinarriak ezarri. Oroitzapenaren ikuspegitik, 1512 konkistaren oroigarria izanik ere, batez ere, biziraupenaren ikurra da. Bizirik bai-kaude euskaldunok konkista hartatik 500 urte iraganik ere. Horri eutsi behar diogu, ene ustetan, XXI mendean, menpekotasun hori gainditzeko baliatu beharreko aukera dugulako gure aitzin. Oroitzeko balio du 1512k, baina batez ere, gure herria deskonkistatzeko jarduera bultzatzeko.

## “Independentziaren alde indarrak bildu behar ditugu, elkarlana bideratuz”

**Independentziarengandik, orain 50 urte baino gertuago ala urutiago gaude euskaldunok?**

Nire ustetan, urrats handiak ematen ari gara, baina oztopo handiak ditugu gure aurrean. Independentziaren egitasmoa formulatuta dago, eta gero eta ikusgarriagoa da. Gure herria suntsitzeko estrategiak porrot egin du. Aukerak sortu dira, eta atea irekirik dago, oztopoak oztopo. Munduan, lehen ez bezala, haize guziak ez datoz gure kontra: jendeak munduari so egiten dio eta independentziaren kontra esan diren gauza asko gezur hutsak zirela atzeman du. Krisialdiak, gainera, mendekotasunaren ondorioak begibistan jarri ditu, baita orain arte gauzak horrela ikusten ez zituztenen aitzin ere. Maila ekonomikoan, nabarmena da mendekotasunak hondoratzen gaituela eta honek begi asko irekierazten ditu. Beste faktore bat ere gehituko nuke nik: frantziar eta espainiar estatua oso gaizki kudeatzen ari dira aro berria. Oso irudi kaskarra ematen ari dira euskal jendartearen aurrean. Nik esanen nuke hurbilago gaudela, besteak beste, independentzia lorgarritzat agertzea lortzen ari garelako. Beharbada urrats horren garrantzia

neurtzea kostatzen zaigu, baina aldaketa historikoa da.

**Globalizazioarekin abertzaletasunak zentzurik ez daukala dioten horiei zer esango zenieke?**

Munduari so egiteko aholkatuko nieke, aukeran. Zer da globalizazioa? Noiz hasi zen? Zenbat estatu desagertu dira nagusitu zenetik? Zenbat sortu dira, berri? Estatuak ez dira desagertzen ari. Aldatzen ari dira, argi dago, baina ez dira desagertzen ari. Gainera, asko dira azkenengo urteetan abiatu direnak. Estatu batzuk indartu dira, beste batzuk ahuldu direlarik. Egia da bestelako egitasmo eta instituzioak sortu direla, baina Nazio Batuen Erakundea ez da munduko gobernu, eta Europar Batasunean estatu batzuk dira agintzen dutenak. Edonola ere, ez genuke ahantzi behar, gurean ez dagoela abertzale eta ez-abertzaleen arteko lehiarik, nazio-estatu egitasmo ezberdinen arteko lehia baizik. Espainiar eta frantziar nazionalismoak aipatu behar ditugu, halabeharrez. Ez dira ez-nazionalistak, estatu nazionalista erasokor eta atzerakoiak baizik.

**Eta independentziak Euskal Herria ekonomikoki egoera kaxkarragoan lagako lukeela dioten horiei?**

Argi esan dezagun: azak janen genituzkeela dioten horiek ez dituzte inoiz ergelkeriak besterik aipatu beren tesia argudiatzeko. Ez dute azterketa ekonomiko serio-rik egin, eta topikoak besterik ez dituzte erabiltzen. Mahai gainean jarri dira behin baino gehiagotan gure ekonomiaren bideragarritasuna sostengatzen dituzten ikerketa eta azterketak. Egun, Euskal Herrian aurreiritzi ideologikoak alde batera uzteko gaitasuna izan duten eragile ekonomiko ugari soberaniaren inguruko azterketa egiten ari dira. Gero eta serioago hartzen dute geure burujabetzaren aukera. Gero eta kezkatuago daudelako mendekotasunaz. Hori, mendekotasunaren aldekoek fabrikatzen ahal dituzten sasi-azterketa guzien gaineratik dago.

**Zein da jarraitu beharreko bidea?**

Gurea, balioko digun gidoi bakarra guk idatzi behar duguna da. Modak agertzen

dira honelakoetan ere, *Quebecmania, Irlandamania, Kosovamania, HerrialdeKatalanmania* eta, orain, *Eskoziamanian* erortzeko arriskua zabaldu daiteke. Eredu interesgarriak dira, baliatu beharrekoak, beste batzuk bezala, baina akats handia litzateke gure herrian gaudela ahaztea. Independentistak Sarean uste dugu independentziaren aldeko gehien-go osatzea izan behar dela lehentasuna. Horretarako, indarrak bildu behar ditugu, independentziaren alde gauden guzian elkarlana bideratuz. Ideien lehia irabazi behar dugu, agerian utziz independentzia bideragarria dela, komeni zaigula, demokratikoa dela eta bat egiten duela munduan eta bereziki European estatutik gabeko herriek egiten duten hautuarekin. Independentzia agendan jarri behar dugu, ikusgarria izan dadin, eta atxekimenduak lortu behar ditugu. Aurten Aberri Egun mundiala egiten dugu Iruñean apirilaren 8an, eta munduko hainbat lekutan data horren inguruan. Denok dugu hitzordua independentziarekin, beraz. Lan ideologikoa erabakiorra izanen da gure ustetan, lehia irabazteko, baina ez aski. Urrats zehatzak eman behar dira, mobilizazioan, atxikimenduetan, estrategiaren diseinuan... Mendekotasuna hautsi beharko dugu independentziaren egun formalaren zain gelditu gabe, independentzia esparruak sortuz. Hori da, gue ustetan, bidea, eta horretarako mugimendu independentista zabal eta indartsua behar dugu. Uste dugu 2012. urtean urrats handia eman behar dugula bide honetan, heldu den urteari indar gehiagoz aurre egiteko.

## “Estatuak ez dira desagertzen ari; asko abiatu dira azkenengo urteetan”

## Partida erabakigarria jokatu du Alkortak bihar sailkapeneko liderraren kontra

Igoera faserako sailkapena bere esku du talde elgoibartarrak

**A**steburu honetan partida erabakigarria jokatu du Alkortak liderraren kontra, eta oraingoan nahitaezkoa izango du irabaztea. Alkortak bere esku du oraindik igoera faseko sailkapena, izan ere, liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, bigarren postuan sailkatuta daude elgoibartarrak eta puntu bateko abantaila dute hirugarren sailkatuarekiko. Bihar ez dute arerio makala izango, izan ere, Ford Mugarri Arrasateko taldea partida bakar bat ere galdu gabe iritsiko baita Elgoibarrera. 23 garaipen eta berdinketa bakarra lortu dituzte 24 jardunalditan. Sanloko arduradunek herritarrei egin diete deia beste behin ere, senior mutilen taldeari animoak ematera joan daitezten. 19:00etan hasiko da norgehiagoka.



## Gustura itzuli dira Morkaikoko kideak Piriniotara egin duten mendi eski irteeratik



Morkaikok antolatuta, Frantziar Piriniotan pasatu dute asteburua 18 elgoibartarrek, eta antolatzaileak zein parte hartzaileak oso gustura itzuli dira. Bigarren urtez antolatu du Morkaikok mendi eski irteera, eta aurten Vignemaleko mazizoaren inguruetara joateko plana prestatu dute. Ostiral iluntzean abiatu ziren furgonetetan Pont d'Espagnera (Frantzia), eta larunbatean, Gaubeko haranean zehar egin zuten ibilaldia, Oulettes de Gaubeko aterpetxera arte. Jarraian, taldeko hainbat kidek gorantz jarraitu zuten, Petit Vignemale (3.032m) gailurrera arte. Domekan, eguneko lehenengo eguzki izpiekin abiatu ziren Ouletteseko lepora bidean (2.606m), bertatik Ara ibaia- ren sorburura jaisten ziren maldetako elurraz gozatzeko. Handik Arratilleko leporantz (2.528m) igo ziren, eta ondoren, mila metroko desnibela jaitsi zuten eskiatzen, Arratilleko eta Marcadauko haranetan zehar, Pont d'Espagnera itzultzeko. Argazki gehiago eta antolatzaileek prestatutako bideoa ikusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

### Alberto Revuelta hirugarren, Udaberri lasterketan

Joan zen domekan jokatu zuten Donostian Udaberri Lasterketa, eta Alberto Revuelta elgoibartarrak hirugarren egin zuen, 32:14 denborarekin. Korrikalariek hamar kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten.

### Hiru Txirlo txapelketako jaurtialdia bihar, Aiastian

Aiastia-San Migelen jokatu dute bihar Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako bigarren jardunaldia. Orain dela bi aste hasi zen aurtengo txapelketa Azpeitiko Garmendipeko bolatokian, eta momentuz, Asola Berriko Jon Zubizarreta dago sailkapeneko lehen postuan, bost txirlorekin. Aiastiako Angel Ibarluzea hirugarren lekuan dago hiru txirlorekin, eta Iker Izagirre bere taldekidea seigarren lekuan dago. Biharko jaurtialdia arratsaldeko 17:00etan hasiko da, eta Aiastiako taldeak lehen postua eskuratzeko borroka egingo du.



# Gipuzkoako pala txapelketako finala galdu dute Mancebok eta Etxeberriak

Azken bi urteetan hiru final jokatu ditu bikoteak

Lagunak Pilota Eskolako Mancebo eta Etxeberria bikoteak Udaberri Sariko gomazko paletako finalak jokatu zituzten joan den barixakuan, Erreterian, baina ezin izan zieten Goierri taldeko pilotarietara irabazi. Bigarren urtez jarraian iritsi dira elgoibartarrak finalera, baina aurten ere txapelak ihes egin zien, 25 eta 18 izan baitzen azken emaitza Goierriarren alde. Mañcebok eta Etxeberriak azken bi urteetan hiru final jokatu dituzten arren, oraindik ez dute lortu irabazlearen txapela janztea, baina hurrengoan txapelarekin etxeratuko direla adierazi dute.



Mancebo, goian eskuman eta Etxeberria, behean ezkerrean.

## Berdinketarekin nahikoa izango du Mekatar xake taldeak mailaz igotzeko

Xake txapelketako goiza faseko azken jardunaldia jokatu du bihar Elgoibarko Mekatar xake taldeak, eta berdinketarekin nahikoa izango du lehenengo mailara igotzeko. Joan zen astean 3-1 irabazi zuten Mundaroren kontra, eta sailkapeneko bigarren postuan daude elgoibartarrak 15 punturekin, lehenengoarengandik 2,5 puntura. Asteburu honetan hirugarren sailkatuaren kontra jokatu dute.

## Elgoibarko igerilariak, Bergaran



Kirol zehaztasuneko hirugarren jardunaldia jokatu zuten Elgoibarko igerilariak Bergaran, eta emaitza onak ekarri zituzten. Besteen artean, aipatzekoa da Ainhoa Rodriguezek 50 metroko estilo librea egindako 38:19 denbora. Nagore San Andresek, bestalde, lehen postua lortu zuen 50 metro braza estiloan, 1:02:25 denborarekin.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Beasain 4 – Haundi 1 (3. maila)  
 Elgoibar 1 – Beti Gazte 2 (Erreg.)  
 Sporting Herrera 1 – Elgoibar 1 (Ohorezko jub.)  
 Vasconia 0 – Elgoibar 0 (Kad. A)  
 Elgoibar 0 – Zestoa 2 (Jub.)  
 Elgoibar 0 – Zumaiako 3 (Ohorezko inf.)  
 Elgoibar 4 – Martutene 3 (Inf. txiki)  
 Elgoibar 1 – Aloña Mendi 5 (Aleb.)  
 Anaitasuna 0 – Elgoibar 5 (Neskak)

### ESKU PILOTA

Oiarpe 22 – Lagunak 16 (1. mailako nag.)  
 Urnieta 22 – Lagunak 18 (1. mailako jub.)  
 Bergara 22 – Lagunak 21 (1. mailako jub.)  
 Lagunak 22 – Antiguoko 17 (2. mailako kad.)  
**Pala**  
 Goierri 25 – Lagunak 18 (Nag.)

### ESKUBALOAIA

Romo 27 – Alkorta Elg. 26 (Sen. mut.)  
 Tecnifuelle Elg. 29 – Askartza 26 (Sen. nesk.)  
 Bergara 31 – Beristain Elg. 27 (Jub. mut.)  
 Lauko Elg. 29 – Bera Bera 23 (Jub. nesk.)  
 Amenabar 34 – Grupo Eibar Elg. 34 (Kad. mut.)  
 Errotaberri 22 – IMH Elg. 27 (Kad. nesk.)  
 Bankoa Elg. 9 – Amenabar A 22 (Inf. mut.)  
 Txarriduna Elg. 14 – Urola A 20 (Inf. mut.)  
 Ikus Elg. 35 – Aiala Zarautz 15 (Inf. nesk.)  
 Urnieta A 13 – Aterpe Elg. 13 (Inf. nesk.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 24

11:30 King-Kong Elg. – Gamon (Jub.)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 24

16:30 Elgoibar – Billabona (Jub.)

Domeka, 25

12:00 Elgoibar – Usurbil (Neskak)

17:00 Haundi – Balmaseda (3. maila)

### ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 24

10:00 Astigarraga Elg. – Aiala (Kad. nesk.)

16:00 Grupo Eibar Elg. – Eibar B (Kad. mut.)

17:30 Beristain Elg. – Eibar B (Jub. mut.)

19:00 Alkorta Elg. – Arrasate (Sen. mut.)

Domeka, 25

9:30 Sanlo B – Sanlo A (Aleb. nesk.)

10:45 Bankoa Elg. – Ereintza B (Inf. mut.)

### PILOTA

Barixakua, 23

22:00 Lagunak – Aretxabaleta (Nag.)

Domeka, 25

12:00 Lagunak – Ilunpe (Nag.)

## LANA

### ESKAERA

- LH, DBH eta batxilergoko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak.  
☎ **696 295 098**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest.  
☎ **686 578 228**
- Emakumeak umeak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Garbiketa lanak egiteko prest, orduka edo interna. Erizain titulua dut.  
☎ **669 010 359**
- Emakumea pertsona nagusiak zainduko lituzke, interna ere lan egingo luke.  
☎ **628 665 395**
- Emakume arduratsua eta esperientziarekin lan bila dabil. Nagusiak zein umeak zainduz edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo Interna.  
☎ **633 150 376**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia; geriatría eta pisologia titulua. ☎ **635 313 375**
- Emakume euskalduna lan bila. Esperientzia handia jende nagusia zaintzen eta garbiketa lanak egiten.  
☎ **943 742 282**
- Emakumea lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest, garbiketa lanak, etxeko lanak egingo lituzke. Jakien maneiatzaile titulua daukat sukaldean lan egin ahal izateko.  
☎ **678 292 120**
- Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka.  
☎ **636 581 194**
- Emakumea lanerako prest. Orduka edo interna.  
☎ **650 152 866**

- Emakumea zaintza eta garbiketa lanak egiteko prest. Asteazkenean eta asteburuetan, orduka edo interna.  
☎ **698 632 922**
- Gizona zaintzan, garbiketan edo baserrian lan egiteko prest.  
☎ **632 798 768**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Zaintza, garbiketa...  
☎ **659 813 248**
- Emakumea lan bila. Interna edo orduka ere egingo nuke lan.  
☎ **652 446 228**

### ESKAITZA

- Emakume euskalduna behar dugu, etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Autoa izatea beharrezkoa.  
☎ **651 703 406**
- Umeak zaintzeko pertsona euskalduna behar da, goizez, apirilaren 2tik 4ra eta apirilaren 10etik 13ra.  
☎ **615 787 118**
- Emakumea behar da pertsona nagusia zaintzeko.  
☎ **670 555 294**

## ETXEBIZITZAK

### SALGAI

- Etxea salgai Gasteizen. Erdigunean, auzo lasaian. Hiru logela, sukalde, bi komun, egongela-jangela, ganbara. Igogailua eta eraikin berri berria.  
☎ **628 524 420**

## BESTELAKOAK

- Gure bide elkarrekin mahai eta aulkiak oso merke saltzen ditut.  
☎ **649 622 420**
- Gaztetxerako sukaldeko tresna elektrikoak eta butanozko edo kerokenozko kalefak behar ditugu. Eskerrik asko!  
☎ **677 898 633**

## GARAJEAK

- Garaje itxia salgai, Erretxindi auzoan.  
☎ **628 524 420**
- Garaje itxia salgai Urasandin, Anayak eraikinean. 13m2 eta goitegia.  
☎ **620 856 768**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



## BARREN

Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

2012ko harpidetza kuotak ondorengoak izango dira:


- ▶ Euskal Herria eta Espainia: **21€** - Bazkideek: **17€**
- ▶ Europa: **31€** - Bazkideek: **25€**
- ▶ Europatik kanpo: **42€** - Bazkideek: **34€**

Norbaitek harpidetza eten nahi badu, jar dadila gurekin harremanetan:  
943 744 112 (Ainhoa) edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)





• Zorionak, **Sara**, zure laugarren urtebetetzean. Ondo pasa eta patxo handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **txapeldunl** ligan 5 urte! Muxu asko etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Haritz**, aste honetan 8 urte bete dituzulako. Patxo handi bat etxeko partez. Ondo-ondo ibili.




• Zorionak, **Haritz**, astelehenean 4 urte egingo dituzulako. Muxu asko familiakoen partez.



• Zorionak, **Naroa printzesa**, zure hirugarren urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko partez.



• Zorionak, **Befiat**, gaur 7 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Gure **Unaxbo** handitzen ari zaigula! Nola pasatzen den denbora! Zorionak, eta muxu pila bat denon partez.



• Zorionak, **Aitor eta Xabier!** Oso ondo pasa Gasteizen! Muxuak familiakoen partez.

#### AGURREN ATALEKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **4€**, argazki bikoitza **6€**, hirukoitza **8€** eta hiru lagunetik gorako taldeak **12€**.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **3€**, argazki bikoitza **5€**, hirukoitza **7€** eta hiru lagunetik gorako taldeak **10€**.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKOBULEGORA**, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.



## OHARRA

Elgoibarko Izarra Kultur elkarteko langile-batzarrak bat egin du martxoaren 29ko greba deialdiarekin. Beraz **LUDETEKA** eta **GAZTELEKUA ITXITA** egongo dira aipaturiko egunean.

## 23 barixakua

### Kale kantariak

18:30 Entsegua

Martxoaren 31ko feriarako entsegua egingo dute kale kantariak, Kultur Etxeko sotoan.

### Jaialdia

19:00 Ikastolako jaialdia

Ikastolako frontoian.

### Zine foruma

22:00 'Manual de amor'

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Dokumentala

22:30 'Haizea eta sustraiak'

Argia dokumentalen barruan, Gaztetxean.

## 26 astelehena

### Tailerra

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, *Los pintores mas pintorescos* arte tailerra egingo dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 25 domeka

### Kirola

9:30 Mendi irteera

Ermua mendira joango dira Ikastolako ume eta gurasoak, *50 urte, 50 mendi* egitasmoaren barruan.

## 27 martitzena

### Tailerra

18:00 Literatur tailerra

Ami Tan idazlearen *La esposa del dios del fuego* liburua landuko dute, Gotzon Garate Udal Liburutegia

### Hitzaldia

19:00 '1512, 1937, 2012

Independentzia'

Floren Aoz idazle eta historigileak hitzaldia emango du. Kultur Etxean.

## 28 eguaztena

### Elkarretaratzea


20:00 Bateragune auzia

Arnaldo askatu, politika askatu plataformak deituta, Bateragune auziaren kontrako elkarretaratzea. Plaza Hand

## ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

ORDUA ALDATU BEHARKO DA MARTXOAREN 25EAN, HAU DA, ZAPATUTIK DOMEKARAKO GAUEAN.

ORDULARIAK ORDUBETE AURRERATU BEHAR DIRA, ETA GOIZEKO 2:00ETAN 3:00AK IZANGO DIRA.



### OKINDEGIA

25 domeka IBARRENEA

### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

#### Egunez

9:00 - 22:00

#### Gauetz

22:00 - 9:00

23	Garitaonandia	Garitaonandia
24	Etxeberria	Etxeberria
25	Etxeberria	Etxeberria
26	Fernandez	Barrenetxea
27	Barrenetxea	Barrenetxea
28	Zabaleta	Etxeberria
29	Yudego	Yudego

#### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

## ZINEA

### «Katmandu, un espejo en el cielo»

23, barixakua: 22:15  
24, zapatua: 19:00/22:15  
25, domeka: 19:00  
26, astelehena: 21:30



### «Malutatxo»

25, domeka: 16:30

### «Katmandu, un espejo en el cielo»

Zuz.: Iciar Bollain. Espainia, 2011. 104 minutu. Drama. Aktoreak: Veronica Etxegi, Sumyata Battarai, Norbu Tsering Gurung. 90eko hamarkadako hasieran, Laia irakasle kataluniarra Katmandura joango da, eskolak ematera. Pobrezia handia eta behartsuenak baztertzeko dituen hezkuntza sistemarekin egingo du topo. Bere gain hartuko du sistema aldatzeko erronka.

### «Malutatxo» Zuz.: Andrés G. Schaer. Espainia, 2010. Animazioa. 90 minutu.

Ekintza errealak eta animazioa nahasten ditu kontakizun honek. Primate albinoak sorgin batengana joko du gorila arrunt bihurtuko duen edabe baten bila, zoon dauden beste gorilek onartu dezaten. Aldi berean, Luc de Sac gaiztoa bere bila dabil hiri osoan zehar.

# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!**



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO  
TEORIKAKO  
IKASTARO  
TRINKOAK**

- Euskarazko eta gazteleraazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**LEKUALDAKETA**

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



МНЭ-ЛМЭ

МАРТХОАК 24, Заргатуа

УДАБЕРРИ ФЕСТА

11:30-12:00

Калигдоон Пизган



GAZTAKERIA

elgoibar

ELGOIBAR  
UDALA